BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

5342

EBAZPENA, 2008ko martxoaren 25ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, SNA Europe Industries Iberia SA enpresari ingurumen-baimen bateratua ematen diona, Vitoria-Gasteizko (Araba) udalerrian eskuzko tresnak egiteko instalazioa aurrera eraman dezan.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 29an, Herramientas Eurotools, SA enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba) eskuzko tresnak egiteko jarduerarako. Ondorengo dokumentu teknikoak erantsi zitzaizkion eskaerari:

– 1. liburukia: Ingurumeneko baimen bateratuaren eskabidea Herramientas Eurotools, SA enpresaren industria-instalazioetarako, Vitoria-Gasteiz (proiektu teknikoa, 2006ko abendua).

– 2. liburukia: Ingurumeneko baimen bateratuaren eskabidea Herramientas Eurotools, SA enpresaren industria-instalazioetarako, Vitoria-Gasteiz (A-D eranskinak, 2006ko abendua).

– 3. liburukia: Ingurumeneko baimen bateratuaren eskabidea Herramientas Eurotools, SA enpresaren industria-instalazioetarako, Vitoria-Gasteiz (2-18 eranskinak, 2006ko abendua).

– 4. liburukia: Ingurumeneko baimen bateratuaren eskabidea Herramientas Eurotools, SA enpresaren industria-instalazioetarako, Vitoria-Gasteiz (19-27 eranskinak, 2006ko abendua).

– 5. liburukia: Ingurumeneko baimen bateratuaren eskabidea Herramientas Eurotools, SA enpresaren industria-instalazioetarako, Vitoria-Gasteiz (28-50 eranskinak, 2006ko abendua).

Erreferentziako baimena eskatzeko orduan, Herramientas Eurotools, SA enpresak, besteak beste, jarduerarako baimena zuen, 2005eko martxoaren 31koa. Aipatutako baimena eskuzko tresnak fabrikatzeko eman zitzaion. Halaber, enpresa sustatzaileak 2003ko apirilaren 1eko industria-hondakin geldoen ekoizleen erregistroko inskripzioa zuen, hondakinen eta isurketen arloan indarreko araudian xedatutakoari jarraituz.

2007ko urtarrilaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran parte hartzen duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, ingurumen organoak proiektua jendaurrean jartzeko agindu zezan. Zehazki, Vitoria-Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari egin zitzaien eskaera.

2007ko apirilaren 4an, ingurumen organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko abuztuaren 3an osatu zen.

Data horretan bertan, ingurumen organo honen aurrean Herramientas Eurotools, SA enpresaren izen sozialaren aldaketa-eskrituren kopia aurkeztu zen. Eskrituraren arabera, izen sozial berria SNA Europe Industries Iberia SA da.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean,

SNA Europe Industries Iberia SA enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Vitoria-Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko martxoaren 5ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa SNA Europe Industries Iberia SA enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako Ebazpenaren Proposamena gehituz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoa betez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. SNA Europe Industries Iberia SA enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena, saneamendu-sare orokorrera isurketak egiteko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada;

baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, SNA Europe Industries Iberia SA enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak eta aplikatzekoa den arloko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2006ko abuztuko Europe Reference Document on Best Available Techniques for the Surface Treatment of Metals and PlasticEurope Industries Iberia BREF txostenaren edukia kontuan hartu da. Horrez gain, araudi sektorialei dagokienez, kasu honetan aplikagarria da batez ere apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretua. Honen bidez, Ontzien eta Ontzien Hondakinen apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatu eta gauzatzeko Araudia onartzen da.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, Ebazpen-proposamena sinatu eta SNA Europe Industries Iberia SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko martxoaren 5ean emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Vitoria-Gasteizko (Araba) udalerriko Kantabrikoaren Hiribideko 14. zenbakian egoitza soziala duen eta IFK: A-20655288 zenbakia duen SNA Europe Industries Iberia SA enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, eskuzko tresnak fabrikatzeko jarduerarako, Vitoria-Gasteizko udalerrian, eta ebazpen honen Bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituko ditu.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.6 kategorian sartuta dago, Metalen eta plastikozko materialen gainazala prozedura elektrolitiko edo kimiko bidez tratatzeko instalazioak, tratamendurako erabilitako kubeten edo lerro osoen bolumena 30 m3-tik gorakoa denean.

SNA Europe Industries Iberia SA enpresaren instalazioak Vitoria-Gasteizko (Araba) udalerrian kokatzen dira, Betoño industrialdean, zehatzago Kantabrikoaren Hiribideko 14. zenbakian.

SNA Europe Industries Iberia SA enpresaren jarduera eskuzko tresnak fabrikatzean datza.

Urteko ekoizpena eskuzko 7.000.000 tresna baino gehiagokoa da (2005eko ekoizpena 7.225.000 piezatakoa izan zen). Ondoko taulan urteko ekoizpena ageri da sailkatuta:

Azken produktua	Ekoizpena
Giltza finkoak	2.000.000
Giltza konbinatuak	1.400.000
Giltza ukondotuak	600.000
Izar-giltza lauak	200.000
Pipa-giltzak	300.000
Allen giltzak	1.100.000
Aliketak	625.000
Kurrikak	100.000
Giltza zabalgarriak	300.000

Erabiltzen dituzten energiak honako hauek dira:

Erabilitako energia	Urteko kontsumoa	Oharrak
Argindarra	5.000.000 kwh (gutxi gorabehera)	Kontratatutako ahalmena 1.800 kw
Gasolioa	9.000 litro (gutxi gorabehera)	Orgatilen erabilera
Gas naturala	160.000 m3	Lurrun-galdara (ni-cr bainuak) berogailu-sistemak tenplatzeko labe eta iraoketa forja-labeak

Instalazioan lehengaia, altzairua, forjatzeko oinarrizko lehen prozesua egiten da, bai eta horri gehitutako operazioak ere. Produktu erdilandua SNA Europe Industries Iberia SA enpresak Irunen duen instalaziora bidaltzen da. Han amaitu egiten dute (mekanizazioa, tratamendu termikoa, azal-tratamendua, paketatua).

Giltza zabalgarri, ontzi eta ontzientzako osagarri, hagaxka-ebakitzaile eta trinketen gorputzen kasuan, piezak instalazioan bertan mekanizatu, hoztu eta iraotzen dira. Azkenik, produktu horiek, SNA Europe Industries Iberia SA enpresak Soraluzen duen instalaziotik datozen bihurkin-hagaxkekin batera, nikel-kromo eta ilunketa azal-tratamenduko linea berrietara eramaten dira.

Instalazioak hainbat ekoizpen-linea ditu. Horien artean, honakoak dira azpimarragarrienak:

– Giltza lauen forjaketa.

– Izar-giltza ukondotuen forjaketa.

– Giltza konbinatuen forjaketa.

– Giltza zabalgarrien forjaketa.

– Ontzi eta osagarrien forjaketa.

– Bihurkin eta giltza zabalgarrien hagaxken azal-tratamendua.

SNA Europe Industries Iberia SA enpresak atmosferara isurtzen duten 10 foku ditu:

– Mekanizazio-prozesuan, bizar-kentzerako trokelak prestatzeko kabinari lotutako isurtze-foku bat.

– Tratamendu termikoaren prozesuan, tenplatzeko labe eta iraoketari lotutako foku bat.

– Leuntze-prozesuan, leuntzeko makinei lotutako hiru foku.

– Azal-tratamenduen prozesuan, ondoko fokuak bereizten dira:

a) Nikel-kromo instalazioa: bi foku.

b) Pieza akastunen desmetalizatzea: foku bat.

c) Ilunketa: foku bat.

d) Lurrun-galdara: foku bat.

Berogailu-hornidurari lotutako konfort-foku bat ere bada.

SNA Europe Industries Iberia SA enpresaren instalazioen ekoizpen-prozesuan eta zerbitzuetan erabiltzen den urak jatorri bakarra du: ur-hornidurarako udal-sarea.

SNA Europe Industries Iberia SA enpresaren jarduerak sortutako hondakin-urak Vitoria-Gasteizko saneamendu-sarera isurtzen dira. Horien artean, honako hondakin-motak bereizten dira:

1.– Industria hondakin-urak; jatorria:

– Hondakin-uren araztegia. Bertan, Ni-Cr, piezen desmetalizatzea eta ilunketa azal-tratamenduetako hondakin-urak tratatzen dira.

– Hozte-dorreetako purgatzeak (ontzien forja eta konpresoreak).

2.– Komun eta aldageletan sortzen diren ur sanitarioak.

– Komunak.

– Aldagelak.

3.– Euri-ur «garbiak», estalkien zorrotenetatik datozenak eta ekoizpen-instalazio kanpoan dagoen guneko estolderiak jasotzen dituenak.

Aipatu behar da enpresak «Euri-uraren kutsaduraren prebentzioa» izeneko prozedura duela.

Instalazioaren antzinatasuna dela eta, ez da industria-urak, ur sanitarioak eta euri-urak bereizten dituen saneamendu-sarerik.

SNA Europe Industries Iberia SA enpresak sustatutako proiektuak, besteak beste, Teknika Onenen Erabilera (TOE) izan daitezkeen ondorengo neurriak barneratzen ditu: Kudeaketa Sistemen eskuragarritasuna (ISO 14001 Arauarekin bat datorren Ingurumen Kudeaketa Sistema eta ISO 9001 Arauarekin bat datorren Kalitate Kudeaketa Sistema); prozesatu aurretik piezen granailatzea; produktu kimikoen gutxieneko inbentarioa; gutxieneko operazioen arteko piezen biltegiratze-denbora; piezak tratamenduaren aurretik tenplaketa- eta koipegabetze-prozesuan jartzen dira; bastidoreen berariazko diseinua; turbulentzia hidraulikoaren existentzia (airearen eta irabiatze mekaniko bertikalaren bidez); ekipoen mantentze-lanetarako berariazko prozesura; kubeten ondoan

jarritako artezketak; azken belaunaldiko artezketak; energia galtzeen gutxitzea (cos (); bainuak lurrun-galdara bidez berotzea (galdara elektrikoarekin berotzea baino eraginkorragoa energiaren ikuspuntutik); bainuen tenperaturaren kontrol automatikoa termostato bidez; hozte-sistema zirkuitu itxian; garbiketa-kubetetan uraren erabileraren kontrola; nikel- eta kromo-bainuetan «Eko» urberritze-andelak; arrastatzeak prebenitzeko jario-denbora nahikoa; nikel, kromo eta bastidore-desmetalizatze bainuetarako urberritzea spraian; garbiketa sinplearen existentzia pasibatzearen ondoren; prozesu kimikoen kontzentrazioaren hilabetean behingo kanpo-kontrola (hornitzaileak); 2006an, kromo hexabalentea kromo tribalenteagatik ordezkatu zen; nikel, kromo eta bastidore-desmetalizatzea kubetetako filtrazioa; koipegabetzea tenplaketaren ondoren eta iraoketa aurretik disoluzio ezegonkorrarekin; hornitzaileak koipegabetzea kontrolatzea (gutxi gorabehera bi hilean behin aldatzea); urberritze-urak araztegi-estazioan tratatzen dira (kontzentratu azido eta alkalinoak gestore bidez kudeatzen dira); hondakin-uren monitorizazioa eta kubeta beroetan airea xurgatzea (bainuak hotzak daudenean itzaltzen dena).

Bigarrena.– SNA Europe Industries Iberia SA enpresak Vitoria-Gasteizko (Araba) udalerrian sustatutako eskuzko tresnak fabrikatzeko jarduera ustiatzeko, ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, SNA Europe Industries Iberia SA enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Kantabrikoko Hiribideko 14. zenbakian (Vitoria-Gasteiz, Araba) dagoen SNA Europe Industries Iberia, S.A. enpresaren instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala eraiki, ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

SNA Europe Industries Iberia SA enpresaren instalazioak ondoko fokuak ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

º	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera	Diametroa	Katalogazioa
					Taldea
1	01000388-01	Bizar-kentze prozesurako trokelak prestatzeko kabina	12 m	0,500 m	C
2	01000388-02	Tenplatzeko labea eta iraoketa IPSEN	12 m	0,200 m	C
3	01000388-03	Leuntzeko makinak (1539-07 fokua)	11 m	0,400 m	C
4	01000388-04	Leuntzeko makinak (1539-08 fokua)	11 m	0,400 m	C
5	01000388-05	Leuntzeko makinak (1539-09 fokua)	11 m	0,400 m	C
6	01000388-06	Nikeleztatzea, desugertzea, koipegabetzea	18 m	0,900 m	C
7	01000388-07	Kromoa, bastidore desmetalizatzea	18 m	0,900 m	C
8	01000388-08	Pieza akastunen desmetalizatzea	15 m	0,280 m	C
9	01000388-09	Ilunketa	15 m	0,400 m	I
10	01000388-10	Ur-galdara	15 m	0,290 m	C

SNA Europe Industries Iberia SA enpresak isurketa-foku guztien UTM koordenatuak aurkeztuko ditu.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gaindituko:

Fokua	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	Partikulak guztira (PG)	150 mg/Nm3
2	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	300 ppm
	Partikulak guztira (PG)*	–
3	Partikulak guztira (PG)	50 mg/Nm^3
4	Partikulak guztira (PG)	50 mg/Nm^3
5	Partikulak guztira (PG)	50 mg/Nm^3
6	Partikulak guztira (PG)	30 mg/Nm^3
	Sufre oxidoak (SOx)	10 mg/Nm^3
7	Kromoa guztira (Cr_T)	0,2 mg/Nm^3
	Amoniakoa (NH_3)	30 mg/Nm^3
8	Partikulak guztira (PG)	30 mg/Nm^3
	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm^3
	Kromoa (Cr_T)	0,2 mg/Nm3 5 g/h bada
9	Partikulak guztira (PG)	30 mg/Nm^3
10	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	300 ppm

*Ebazpen honen C.1.b puntuan adierazten dena kontuan hartuta, BKEk atmosferan egindako neurketen txostenak erakusten dituen emaitzen arabera aztertuko da poluitzaile bakoitzari ezar dakiokeen muga.

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurketarako muga-balioak gainditu, arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

KOHei (KOG bezala neurtuta) dagokienez, gehienez onar daitezkeen balioek ez dituzte isurketarako muga-balioak gainditu, arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batez bestekoak ez baditu gainditzen isurketarako muga-balioak, eta ordubeteko neurketek ez badituzte gainditzen isurketarako muga-balioak, 1,5 baino gehiagogatik.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2. atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira, Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziak (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

B.1.2.– Saneamendu-sarera isurketak egiteko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: eskuzko tresnak fabrikatzea.

Jarduera-taldea: metalak.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-28.621 Europe Industries IberiaEskuzko tresnen fabrikazioaEurope Industries Iberia.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Industrialak	Leuntze- (I_1) eta bibrazio- (I_2) prozesuaren ur araztua (dunbal-bibroen araztegia)	Vitoria-Gasteizko kolektore-sistema	X: 528.199 Y: 4.746.021
		Azal-tratamendu (I_3), piezen desmetalizatzea (I_4) eta ilunketa (I_5) prozesuaren ur araztua (EDAR araztegia)		

B.1.2.2.– Gehienez isuri daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: industria-urak.

Orduko puntako emaria	10 m^3
Eguneko gehienezko bolumena	136 m^3
Urteko gehienezko bolumena	30.000 m^3

b) Hozte-purgatzeen eta erabilera higienikoko uren isurketak.

Emari horien datuak Vitoria-Gasteizko Udalaren esku egongo dira.

B.1.2.3.– Isurketarako muga-balioak.

Azken isurketak Vitoria-Gasteiz udalerriko etxekoak ez diren isurketen Udal Ordenantzan ageri diren muga eta baldintzak bete beharko ditu, Erakunde horrek ezar ditzakeen zehaztapen, aldaketa edo salbuespenak barne eta ondoko muga gehigarriekin:

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
Guztizko kromoa	1 mg/l
Nikela	1,5 mg/l

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Hozte-zirkuituak husteko arau egokien bidez errespetatu eta bermatu behar den protokoloa ondorengoa izango da:

1.– Husteko gutxieneko denbora: 72 ordu.

2.– Hondar-kloro askea erreaktiboak gehituz edo beharrezko denboran pausagune bidez, etab. ezabatzea, eta zuzeneko «in situ» analisi-kontrola, isuri aurretik klororik ez dagoela bermatzeko.

3.– Putzuaren hondoan metatutako lohiak kendu eta hustea, hori isurtzea derrigorrez saihestu behar baita.

B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

SNA Europe Industries Iberia SA enpresan dauden arazketa-instalazioek edo hondakin-urak zuzentzeko neurriek honako jarduera hauek barne hartzen dituzte funtsean:

– Hondakin-uren araztegi-estazioa.

Metalen neutralizazioa eta prezipitazioa barne hartzen duen tratamendu fisiko-kimikoan oinarritzen den arazketa-tratamendua, eta dekantazioan eta iragazpenean oinarritzen den bereizketa-operazio bat: sortutako lohiak hondakin arriskutsu gisa kudeatzen dira.

– Dunbal-bibroen araztegia:

Hala, bibro/dunbaletan kontsumitutako uraren berrerabilpena egin daiteke.

Tratamendua, funtsean, hondakin-urak karea gehitzearen bidez neutralizatzean datza, konposatu metalikoen prezipitaziorako eta ondoren prentsa-iragazkian filtratzeko. Hala, bibro/dunbaletan kontsumitutako uraren berrerabilpena egin daiteke. Arazketa-prozesuan sortzen diren opilak hondakin geldo gisa kudeatzen dira.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, SNA Europe Industries Iberia SA enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, isuriak kontrolatzeko kutxeta bat jarriko da baimendutako hondakin-ur mota bakoitzerako; kutxeta horiek isurien lagin esanguratsuak lortzeko behar dituen ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplika dakiekeen berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu egin behar da eta horretarako balioztatze-gune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek balioztatzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira balioztatzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia eta gertutasun printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira ezbeharrean gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Vitoria-Gasteizko Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

• 1. Prozesua: «Mozte, forjatze eta bizar moztea».

1. hondakina: Hondakin oliotsua.

Identifikazioa: A20655288/100003106/1/1.

Hondakinaren kodea: Q8//D9//L8//C51//H5//A241//B3258.

HEZ: 130205.

Urtean sortutako kantitatea: 4.000 kilogramo.

Mozketa azpiprozesuan sortzen da; hidrokarburoak ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

2. hondakina: «Grafitodun hondakin oliotsua».

Identifikazioa: A20655288/100003106/1/2.

Hondakinaren kodea: Q8//D9//P8//C51//H5//A241//B3258.

HEZ: 120114.

Urtean sortutako kantitatea: 12.000 kilogramo.

Forjatze azpiprozesuan sortzen da; hidrokarburoak ditu.

Sortzen den lekutik zuzenean jasotzen du baimendutako kudeatzaileak.

2. Prozesua: «Tratamendu termikoa eta granailatze edo jariatua».

– 1. hondakina: «Emultsio oliotsua».

Identifikazioa: A20655288/100003106/2/1.

Hondakinaren kodea: Q8//D9//L9//C51//H5//A241//B3140.

HEZ: 130507.

Urtean sortutako kantitatea: 400 kilogramo.

Tenplaketa azpiprozesuan sortzen da; hidrokarburoak ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

3. Prozesua: «Zulatzea, leuntzea eta bibratua».

1. hondakina: «Taladrina».

Identifikazioa: A20655288/100003106/3/1.

Hondakinaren kodea: Q8//D9//L9//C51//H5//A241//B3141.

HEZ: 120109.

Urtean sortutako kantitatea: 6.000 kilogramo.

Zulatze azpiprozesuan sortzen da; hidrokarburoak ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

2. hondakina: «Desinkrustatzaile azidoa».

Identifikazioa: A20655288/100003106/3/2.

Hondakinaren kodea: Q7//D9//L27//C23//H8//A241//B3141.

HEZ: 060106.

Urtean sortutako kantitatea: 6.000 kilogramo.

Iragazkien garbiketan sortzen da; soluzio azidoak ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

4. Prozesua: «Pintatzea eta bernizatzea».

– 1. hondakina: «Pintura-kabinaren ura».

Identifikazioa: A20655288/100003106/4/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//D9//L12//C41//H5//A241//B3251.

– HEZ: 080119.

Urtean sortutako kantitatea: 6.400 litro.

Pintatze azpiprozesuan sortzen da; disolbatzaile organikoak ditu.

Sortzen den puntuan jasotzen da zuzenean kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

– 2. hondakina: «Lakatze-bainua».

Identifikazioa: A20655288/100003106/4/2.

– Hondakinaren kodea: Q7//D15//P12//C41//H5//A241//B3251.

HEZ: 080111.

Urtean sortutako kantitatea: 400 kilogramo.

Bernizatze azpiprozesuan sortzen da; disolbatzaile organikoak ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

3. hondakina: «Koipegabetze alkalinoa».

Identifikazioa: A20655288/100003106/4/3.

– Hondakinaren kodea: Q7//D9//L27//C24//H8//A241//B3251.

– HEZ: 110113.

Urtean sortutako kantitatea: 400 kilogramo.

Piezen koipegabetze azpiprozesuan sortzen da; soluzio basikoak ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

• 5. Prozesua: «Kalibratze eta kontrola».

– 1. hondakina: Laborategiko. erreaktiboak.

Identifikazioa: A20655288/100003106/5/1

Hondakinaren kodea:

Q6//R13//L40//C23/24/43//H6/8//A241//B0001.

HEZ: 160506.

Urtean sortutako kantitatea: 10 kilogramo.

Produktuen adostasun-saiakuntzetan sortzen da; soluzio basikoak eta azidoak eta konposatu aromatikoak ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

• 6. Prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

– 1. hondakina: «Hodi fluoreszenteak».

Identifikazioa: A20655288/100003106/6/1.

Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H14//A241//B0019.

HEZ: 200121.

Urtean sortutako kantitatea: 100 kilogramo.

Merkurioa duten lanpara erabiliak birjartzeko eragiketetan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako kutxan biltzen da, horretarako berariaz jarritako gunean.

– 2. hondakina: «Pinturadun disolbatzailea».

Identifikazioa: A20655288/100003106/6/2.

Hondakinaren kodea: Q7//D15//L5//C41//H6//A241//B0019.

HEZ: 080111.

Urtean sortutako kantitatea: 400 kilogramo.

Pinturaz bustitako ekipoak disolbatzaile bidez garbitzean sortzen da; disolbatzaile organikoak ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

3. hondakina: «Hondakin sanitarioak. II. Taldea».

Identifikazioa: A20655288/100003106/6/3.

Hondakinaren kodea: Q16//D15//S1//C35//H9//A241//B0019.

HEZ: 180103.

Urtean sortutako kantitatea: 30 litro.

Zerbitzu Medikuaren azpiprozesuan sortzen da; hondakin ebakitzaileak eta zorrotzak dira.

Edukiontzi hermetiko batean gordetzen da, botikinean; edukiontzi horretatik atera eta zuzenean ematen zaio baimendutako kudeatzaileari.

4. hondakina: «Gai bustiak».

Identifikazioa: A20655288/100003106/6/4.

Hondakinaren kodea: Q5//D15//S40//C51//H5//A241//B0019.

HEZ: 150202.

Urtean sortutako kantitatea: 800 kilogramo.

Elementu xurgatzaileak eta ehun-elementuak biltzean sortzen da; olioarekin zikindutako trapuak, material xurgatzailea, etab. dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 5. hondakina: «Kutsatutako metalezko ontzi hutsak».

Identifikazioa: A20655288/100003106/6/5.

Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41//H5//A241//B0019.

HEZ: 150110.

Urtean ekoitzitako kantitatea: 10 bidoi.

Ontzi hutsak jasotzerakoan sortzen da; pinturak eduki dituzten metalezko ontziak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

6. hondakina: «Kutsatu tako plastikozko ontzi hutsak».

Identifikazioa: A20655288/100003106/6/6.

Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41//H5//A241//B0019.

HEZ: 150110.

Urtean ekoitzitako kantitatea: 100 kilogramo.

Ontzi hutsak jasotzerakoan sortzen da; pinturak eta bernizak eduki dituzten metalezko ontziak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 7. hondakina: PKB/PKT duten transformadoreak eta kondentsadoreak.

Identifikazioa: A20655288/100003106/6/7.

Hondakinaren kodea: Q12//D15//S10//C32//H6/7//A241//B0019.

HEZ: 160209.

Urtean sortutako kantitatea: 440 kilogramo.

Mantentze-lan orokorreko azpiprozesuaren hondakin gisa sortzen da; kudeatzaile baimenduari entregatzeko erretiratzen da zuzenean.

8. hondakina: «Berunezko bateriak».

Identifikazioa: A20655288/100003106/6/8.

Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C18/23//H8/14//A241//B0019.

HEZ: 160601.

Urtean sortutako kantitatea: 3 kilogramo.

Beruna eta soluzio azidoa duten bateria erabiliak berritzerakoan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako kutxan biltzen da, horretarako berariaz jarritako gunean.

• 7. Prozesua: «Elektrolisia orokorrean.»

1. hondakina: «Nikel bainuak».

Identifikazioa: A20655288/100003106/7/1.

Hondakinaren kodea: Q7//D9//L27//C5/23//H6/14//A241//B3252.

HEZ: 110106.

Urtean sortutako kantitatea: «15614 litro».

Nikela eta kromoa duten gainazalak tratatzeko eragiketetan sortzen da. Nikela eta gehigarriak dituen disoluzioa da.

Hondakin hori identifikatzeko edukiontzian biltzen da eta berariaz duen gunean gordetzen da, edo bertatik zuzenean ateratzen da sortzen denean kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

– 2. hondakina: «Kromoa III bainuak».

Identifikazioa: A20655288/100003106/7/2.

Hondakinaren kodea: Q7//D9//L27//C23//H4//A241//B3252.

HEZ: 110106.

Urtean sortutako kantitatea: 7054 litro.

Nikela eta kromoa duten gainazalak tratatzeko eragiketetan sortzen da. Kromoa eta gehigarriak dituen disoluzioa da.

Hondakin hori identifikatzeko edukiontzian biltzen da eta berariaz duen gunean gordetzen da, edo bertatik zuzenean ateratzen da sortzen denean kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

– 3. hondakina: «Desugertze-bainu agortua».

Identifikazioa: A20655288/100003106/7/3.

Hondakinaren kodea: Q7//D9//L27//C23//H8//A241//B3252.

HEZ: 110106.

Urtean sortutako kantitatea: 25.000 litro.

Nikela eta kromoa duten gainazalak tratatzeko eragiketetan sortzen da. Azido sulfurikoa eta gehigarriak dituen disoluzioa da.

Hondakin hori identifikatzeko edukiontzian biltzen dira, horretarako berariaz jarritako gunean.

– 4. hondakina: «Koipegabetze-bainu agortuak».

Identifikazioa: A20655288/100003106/7/4.

Hondakinaren kodea: Q7//D9//L27//C24//H8//A241//B3252.

HEZ:10106.

Urtean sortutako kantitatea: 40.000 litro.

Nikela eta kromoa duten gainazalak tratatzeko eragiketetan sortzen da. Produktu deskoipeztatzailea duen disoluzioa da.

Hondakin hori identifikatzeko edukiontzian biltzen dira, horretarako berariaz jarritako gunean.

5. hondakina: «Upeletako iragazkiak».

Identifikazioa: A20655288/100003106/7/5.

Hondakinaren kodea: Q8//D15//S40//C5//H14//A241//B3252.

HEZ: 150202.

Urtean sortutako kantitatea: 1 m^3.

Nikela eta kromoa duten gainazalak tratatzeko eragiketetan sortzen da. Nikel eta kromoz bustitako iragazkiak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako big-bag batean jasotzen da, berariaz prestatutako lekuan.

• 8. Prozesua: «Ilunketa azal tratamendua».

– 1. hondakina: «Ilunketa-bainuak».

Identifikazioa: A20655288/100003106/8/1.

Hondakinaren kodea: Q7//D9//L21//C24//H8//A241//B3258.

HEZ: 110198.

Urtean sortutako kantitatea: 360 litro.

Gatz inorganikoak dituzten gainazalak tratatzeko eragiketetan sortzen da.

Hondakin horrentzat identifikatutako bidoian biltzen da, horretarako berariaz jarritako gunean.

2. hondakina: «Piezen desmetalizatzea».

Identifikazioa: A20655288/100003106/8/2.

Hondakinaren kodea: Q7//D15//L27//C24//H8//A241//B3258.

HEZ: 110198.

Urtean sortutako kantitatea: 4.000 kilogramo.

Stripper, nikel eta kromoa duten gainazalak tratatzeko eragiketetako akastun piezen desnikelatze-operazioetan sortzen da.

Hondakin horrentzat identifikatutako bidoian biltzen da, horretarako berariaz jarritako gunean.

• 9. Prozesua: «Tangen garbiketa».

1. hondakina: «Bastidoreak desmetalizatzearen lohiak».

Identifikazioa: A20655288/100003106/9/1.

Hondakinaren kodea: Q7//D13//P27//C5/24//H4//A241//B0010.

HEZ: 110198.

Urtean sortutako kantitatea: 800 litro.

Bastidoreak desnikelatzeko prozesuko tangen garbiketa-operazioetan sortzen da, stripper, nikel eta kromoa dute.

Hondakin horrentzat identifikatutako bidoian biltzen da, horretarako berariaz jarritako gunean.

• 10. Prozesua: «Hondakin-uren tratamendua».

– 1. hondakina: «Araztegiko lohiak».

Identifikazioa: A20655288/100003106/10/1.

Hondakinaren kodea: Q8//D9//P27//C5/24//H5//A241//B0006.

HEZ: 110109.

Urtean sortutako kantitatea: 16.000 kilogramo.

Azal-tratamenduko prozesuaren hondakin-uren arazketa-operazioetan sortzen da, nikel, kromo eta ilunketaren gatz inorganikoak ditu.

Hondakin hori identifikatzeko edukiontzian biltzen dira, horretarako berariaz jarritako gunean.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) «Pintura-kabinaren ura», «nikel-bainuak» eta «kromo III bainuak» hondakinak instalazioan sortzen diren gordailuetatik zuzenean bildu beharko dira, aurrez ontziratu edo gorde gabe, baimendutako kudeatzaileari entregatzeko.

c) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

d) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

e) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratu, etiketatu eta gordetzeko baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituen martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan eta hori garatzeko araudietan ezarritakoak izango dira.

f) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabete baino gehiago gorde.

g) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

h) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. SNA Europe Industries Iberia SA enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, horiek derrigorrezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

i) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

j) SNA Europe Industries Iberia SA enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako industria-olio erabilia.

k) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu SNA Europe Industries Iberia SA enpresak.

l) Aipatutako irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren arabera, olioaren hondakinen kasuan, SNA Europe Industries Iberia, S.A. enpresak bere ezaugarriak direla-eta olioari dagozkionak eta euren kudeaketa aipatutako Dekretuak arautzen dituenak, hondakin horien ezaugarri fisiko-kimikoak egiaztatu beharko ditu tratamendua jaso dezaten kudeatzaile baimenduari bidali aurretik. Aipatutako Dekretuak bere 20. artikuluan xedatutakoaren arabera, egiaztapen hori ez da beharrezkoa izango, baldin eta SNA Europe Industries Iberia SA enpresak olio-hondakin horiek Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutako transferentzia-estazio batera eramaten baditu; izan ere, orduan transferentzia-estazio horretako titularrak hartuko du bere gain betebehar hori, erabilitako olioa amaierako kudeatzaileari bidali baino lehen.

m) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

n) SNA Europe Industries Iberia SA enpresak PKB eduki dezaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak, eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

o) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Erregelamenduan ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. SNA Europe Industries Iberia SA enpresak era horretako substantzia erabilirik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparatuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

p) SNA Europe Industries Iberia SA enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helmuga eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

q) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabiliz, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

r) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarrietako bete dadin, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, SNA Europe Industries Iberia SA enpresak neurri zuzentzaileak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzan, gutxienez lau urtean behin.

s) Aurreko g eta h (kudeatzaileak EAEn daudenean), p) eta q) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

t) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, SNA Europe Industries Iberia SA enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikulua) , amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzekoan, ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun eta osasun arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak:

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	Ehz kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Txirbil eta txatarra metalikoa	120101	Mozte, forjatze eta bizar-moztea	1.175 t/urte
Papera eta kartoia	150101	Paketatzea	2 t/urte
Egurrezko paletak	150103	Zerbitzu orokorrak	4 t/urte
Bibroen iragazte-lohiak	110109	Hondakin-uren tratamendua	220 t/urte
Industria-zaborra	200301	Zerbitzu orokorrak	166 t/urte

a) «Bibroen iragazte-lohien» kasuan, hondakin horiek ispilu-sarrera dute gaur egun indarrean dagoen hondakinen Europako zerrendan. Bada, horiek hondakin ez-arriskutsutzat hartuko dira, baldin eta hondakin horiek lehenengo aldiz ebaluatu baino lehen karakterizatzen badira; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Baldin eta hondakin hori arriskutsua dela ezartzen bada, ebazpen honetako B.1.3.1 atalean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

b) B.1.3 atalean bereiztearen eta hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoen inguruan xedatutakoari jarraituz, «zabor ez industriala» izeneko hondakinak ezingo du baliotu daitekeen

hondakin-frakziorik izan. Horri dagokionez, egungo egoeran Euskal Autonomia Erkideagoan baliotu daitezkeen hondakin-frakzioak hauek dira: papera eta kartoia, zura, plastikoak, metal ferrikoak eta metal ez-ferrikoak.

c) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

d) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

e) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. SNA Europe Industries Iberia SA enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokidea, horiek derrigorrezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

f) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

g) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

h) Aurreko f, g (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta h ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzoruaren kalitatea babesteko neurri orokorrak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, SNA Europe Industries Iberia SA enpresak honako neurri zuzentzaileak aplikatu beharko ditu:

1.– Ekoizpen-instalazioaren lurzorua garbitu eta egokitzea. Gainera, zola zolatua epoxi pinturarekin tratatuko da iragazgaiztasuna bermatzeko.

2.– Mekanizatuen gunean jario, isuri eta zipriztinei aurre egiteko atxikipen-sistemak jartzea. Mekanizatuen prozesuetan erabiltzen diren makina guztiak ez daude erretilu metalikoen gainean bermatuta eta tanta-jario txikiak gordetzeko erretilu txiki osagarriak dituzte. Jario konfinatuak modu egokian kudeatuko dira horien gainezkaldiak gerta ez daitezen.

3.– Atxikipen-erretiluak jartzea, ekoizpen-prozesuen barruan biltegiratutako produktuetarako zein hondakin arriskutsuen biltegian dauden hondakin likido edo oretsuetarako.

4.– Nikelatze-kromatze, ilunketa eta pieza akastunen desmetalizatze instalazioen inguruan atxikipen-kubeta osatuko duten irtengunean eraikitzea. Hala, istripuz gerta daitezkeen jario edota isurketen mugatzea bermatuko da.

5.– Hormigoiaren egoeraren zaintzea eta aldizkako mantentze-lanak.

6.– Langileen prestakuntza eta sentsibilizazioa gai arriskutsuen eta hondakinen manipulazio egokia sustatzeko, bereziki, olio eta taladrina, olioz bustitako txirbil eta hondakin oliotsuen kasuan, operazio- edo ontziz aldatze-prozesuetan arrisku-egoerak ekiditeko. Produktu kimikoak erortzen badira, lurzorua berehala garbituko da.

7.– Txirbilen ontziko txirbil metalikoaren jario-denbora handitzea, eta aipatu edukiontzia erregularki hustea horretarako den balbularen bidez taladrina-jarioaren arriskua gutxituz.

8.– Lurzoru eta urak kutsatzearen aurkako eta azal-tratamenduetako instalazioetako koipegabetze- eta desugertze-bainu agortuen arazketarako babes-neurri hobeak ezartzea.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Vitoria-Gasteizko Udaleko «Zarata eta Bibrazioei buruzko Udal Ordenantza» jasotako ondoko mailak ez gainditzeko beharrezko diren neurri guztiak hartuko dira:

1. Taula	Barneko zarata mailaren mugak bzm (1)	
	Eguna	Gaua
Bizitegi-erabilera	37 db-a (2)	27 db-a (2)
Hirugarren sektorea	40 db-a	35 db-a
Ekipamendua	45 db-a	40 db-a
Ekoizpena	55 db-a	55 db-a
(1) balio horiek etengabeko zaratarenak dira. Eragin zaratarako 3 db-a gehituko dira. (2) balio horiek, hala badagokio, tonu entzungarrien zuzenketarekin (IV. eranskina) neurtuko dira.		

2. Taula	Kanpoko zarata mailaren mugak kzm (1)	
	Eguna	Gaua
Sentikortasun baxuko eremua	70 db-a	70 db-a
Sentikortasun ertaineko eremua	55 db-a (2) (3)	45 db-a (2) (3)
Sentikortasun altuko eremua	50 db-a (2) (3)	40 db-a (2) (3)
(1) balio horiek etengabeko zaratarenak dira. Eragin zaratarako 3 db-a gehituko dira. (2) balio horiei 5 db-a gehituko zaizkie zarata jasaten dutenak baino lehenago zegoen ekoizpen erabilera duen isurketa-fokua denean. (3) balio horiek, hala badagokio, tonu entzungarrien zuzenketarekin (IV. eranskina) neurtuko dira.		

Sentikortasun Baxuko Eremua.– Eremu hori industria-guneek osatzen dute.

Sentikortasun Ertaineko Eremua.– Ingurumen Zarataren Mapan, gauez 50 dB-A-ko zarata-mailaren baliokide edo altuagoak edota egunez 60 dB-A jasaten dituzten bizitegi-eremuek osatzen dute.

Sentikortasun Altuko Eremua.– Ingurumen Zarataren Mapan, gauez 50 dB-A-ko zarata-mailaren baliokide edo baxuagoak edota egunez 60 dB-A jasaten dituzten bizitegi-eremuek osatzen dute. Halaber, sentikortasun Altuko eremu gisa hartzen dira eraikuntza itxiko etxadiek osatutako barne-guneak.

Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferako isurtzeak kontrolatzea.

a) SNA Europe Industries Iberia SA enpresak isuriak kontrolatu beharko ditu, ondorengoaren arabera:

Fokua	Foku-kodea	**Fokuaren izena**	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	01000388-01	Bizar-kentze prozesurako trokelak prestatzeko kabina	PT	Bost urtean behin
2	01000388-02	Tenplatzeko labea eta iraoketa IPSEN	LK	Bost urtean behin
			NO_X	
			KOH	
			PT*	
3	01000388-03	Leuntzeko makinak (1539-07 fokua)	PT	Bost urtean behin
4	01000388-04	Leuntzeko makinak (1539-08 fokua)	PT	Bost urtean behin
5	01000388-05	Leuntzeko makinak (1539-09 fokua)	PT	Bost urtean behin
6	01000388-06	Nikeleztatzea, desugertzea, koipegabetzea	PT	Bost urtean behin
			SO_x	
			Ni	
			KOH*	
7	01000388-07	Kromoa, bastidore desmetalizatzea	Cr_T	Hiru urtean behin
			NH_3	
			KOH*	
8	01000388-08	Pieza akastunen desmetalizatzea	PT	Hiru urtean behin
			HCl	
			Cr_T	
			Ni	
			KOH*	
9	01000388-09	Ilunketa	PT	Bost urtean behin
			KOH	
10	01000388-10	Ur-galdara	LK	Bost urtean behin
			NO_X	

* Ondorengo paragrafoan adierazten dena kontuan hartuta, BKEk atmosferan egindako neurketen txostenak erakusten dituen emaitzen arabera aztertuko da poluitzaileak behin betiko barne hartzen diren.

a) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu (KEB) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurketa, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Nolanahi ere, isurtzeko kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

b) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Parametroen neurketak ez izatekotan, edo ebazpen honetan neurketak egiteko ezarritako maiztasuna baina

zaharragoak badira, neurketak berriz egin beharko dira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

c) Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskatuko balute, eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Derrigorrezkoa da ur tratatua neurtzeko pH-neurgailu jarraiki bat eta isuritako uren emari-neurgailu bat izatea, neurketaren tokiko adierazlea, beharrezko bi puntutan alarmak, eta datu historikoak gordetzeko eta kudeatzeko sistema informatizatua dutenak. Horiek Administrazioaren esku egon beharko dute gainera.

b) Analisi hauek egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
1. Isurketa-puntua:	Industriako hondakin-urak	pH-a, emaria	Jarraikia	Autokontrola
		pH-a	Egunerokoa	Autokontrola
			Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Oxigeno-eskari kimikoa (OEK)	Hamabost egunero	Autokontrola
			Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Solido esekiak (SS)	Hamabost egunero	Autokontrola
			Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Olio eta koipeak (A eta G)	Hamabost egunero	Autokontrola
			Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Kloruroak	Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Fosfatoak	Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Burdina (Fe)	Egunerokoa	Autokontrola
			Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Guztizko kromoa ($Cr_{GUZTIZKOA}$)	Egunerokoa	Autokontrola
			Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		kromo hexabalentEA (CrVI)	Egunerokoa	Autokontrola
			Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Nikela (Ni)	Egunerokoa	Autokontrola
			Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Guztizko fosforoa ($P_{GUZTIZKOA}$)	Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Guztizko Nitrogenoa ($N_{GUZTIZKOA}$)	Hiru hilero	Kanpo-kontrola

Isurketa-kontroleko kutxeten UTM koordenatuak adierazi beharko dira.

c) Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, «Erakunde laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira lagina hartzen denetik hilabeteko epean.

d) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira.

e) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.1.2.3 atalean ageri diren parametro guztiek ezarritako mugak betetzen baditu.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Produktu kimikoen kontsumoa	Kg/fabrikatutako milioi tresna
Uraren kontsumoa bainuetan	M^3/fabrikatutako milioi tresna
Gas naturalaren kontsumoa bainuetan	M^3/fabrikatutako milioi tresna
Bainuetan sortutako hondakin arriskutsuen kantitatea	Kg/fabrikatutako milioi tresna

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lursaileko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den ingurumena zaintzeko programako testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Bidalketa urtero egingo da, martxoaren 30a baino lehen beti, eta ingurumena zaintzeko programako emaitzekin batera, txosten bat aurkeztuko da. Txosten horretan adieraziko dira neurri babesle eta zuzentzaileen funtzionamendua, baita prozesuak eta inguruneareN kalitatea kontrolatzeko sistemak ere. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Arabako Ordezkaritza).

C.6.– Ingurumena Zaintzeko Programari buruzko agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta Ebazpen honetan proposatutako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du, modu egokian xehatuta.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta ezarritako mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera, honako hauen aplikazio esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (28.621 «Eskuzko tresnen fabrikazioa» epigrafea), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, SNA Europe Industries Iberia SA enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduerak.

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan jasotako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko isuri edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa-mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskaritzak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, produktu kimikoak, hondakin-uren arazketa-hondakinak eta abarrak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

h) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

j) Biltegien hondoan edo putzuak garbitzerakoan pilatzen diren solidoak ez dira ibai-ibilgura hustuko; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegi baimendura eramango dira.

k) Arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, gordailu iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan gordeko dira.

l) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

m) Arazteko instalazioek lohien tratamendua badute, xukatutako ura instalazioaren sarrerara birzirkulatuko da, hori tratatzeko.

n) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

o) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

p) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ezbeharrez gertatzen diren isurketak, kontrolik gabeko isurtze atmosferikoak, zaraten inguruko kexak), gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko zaio berehala Ingurumen Sailburuordetzari.

q) Gertakari edo arazo larriren bat edo atmosferara ustekabeko isuriren bat eginez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko

zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 18 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

– Gertakari mota.

– Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

– Iraupena.

– Ustekabeko isuria bada, emaria eta isuritako gaiak.

– Mugak gaindituz gero, isurtzeei buruzko datuak.

– Eragindako kalteen balioespena.

– Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.

– Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

r) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, baita neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin, SNA Europe Industries Iberia SA enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, lehendik dauden instalazioen titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE araudian aurreikusitako erregistratu eta ebaluatzeko prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako Bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.3.1.g eta B.1.3.2.e (Sortutako hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak onartzeko agiriak); B.1.3.1.q eta B.1.3.2.g (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen erregistro-eredua); B.1.3.2.a (HEZen ispilu-sarrera duten hondakinen karakterizazioa); B.1.4 (Lurzoruaren kalitatea babesteko baldintzak); C.1 (Atmosferara isurtzen diren kutsatzaileen kontrola eta isuri atmosferikoen erregistro-eredua); C.2.a (etengabe neurtzeko ekipoak dituztenaren ziurtagiria); C.4 (Zarataren kontrola); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (Mantentze-lanetako isuri eta hondakinen balioespena); D.3.a (Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); D.3.g (produktu kimikoak biltegiratzeko egiaztagiriak); D.3.h (larrialdietako kasuetarako beharrezko materialak); D.3.i (kubetak husteko maniobraren operazio-kontrolaren protokoloa); eta D.3.r (suteen aurkako babesaren ziurtagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edozein modutan ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– SNA Europe Industries Iberia SA enpresak ebazpen honen xede den eskuzko tresnak fabrikatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

– Ebazpen honen Hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan adierazitako baldintzak epearen barruan ez egiaztatzea, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

– SNA Europe Industries Iberia SA enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

– Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea SNA Europe Industries Iberia SA enpresari, Vitoria-Gasteizko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena. Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 25a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.